


Jeinuaren zirikada



Egun euritsua eta hotza zen, Domu santu eguna. Etxeko berogailua piztuta epel-epel nengoen etxean. Euriari begira aspertuta, zer egin ez nekiela, etxearen alde batetik bestera nenbilen zeregin bila.

Eta bat-batean bera agertu zen. Sukaldeko egutegitik zintzilik harrokeriaz begiratzen zidan. Duela aste bi jasotako esku-orriari hobeto erreparatu nion. Txorierriko 15. ipuin lehiaketaren esku-orria zen. Han agertzen zen jeinu urdinak xaxatu egiten ninduen behin eta berriro “Ezetx ausartu”, “Ezetx ausartu” esanda. Mesprezu aurpegiak neure barruko harrokeria piztu zuen, eta ume moko pipertuaren antzera ordenagailua piztera joan nintzen.

Jeinuak ipuina idazteko erronka egin zidan. Neuk erronka onartu. Begiradak akuiluaren zirikada eragin zidan, eta nik, idiaren papera hartuta aurrera egin nuen. Probalekua logela, eta harria ipuina idatzi behar izatea. Bultzaka hasi nintzen, baina nahiz eta saiatu neure atzamarrek ez zuten buruaren agindurik jaso.

Hala eman nuen denbora tarte bat; idatzi nahi baina ezin, eta amore emateko gogoa ere izan nuen, baina jeinuari begiratzen nion bakoitzean, bere jarriera harro eta begirada zorrotzek aulkian jarraitzeko grina pizten zidaten.

Halako batean, esku-orria hatz erakusle eta erpuruaren artean laztantzen ari nintzela doinutxu errepikakor bat hasi zitzaidan buruan, mihia ere dantzan jarrita. Zelan ez nekiela bertsoa moldatzen hasi nintzen.